

EZER EZ TA FESTA

IRUDIGILEAK:

Kaximira.
Antoni.
Batixta.
Xoluerdi.
Juxto.
Martzelo jauna.

I

Antixun, poto, krisalu egiteko lantegi edo denda azalduko da. Atzian, kaletik sarerako atia. Ezkeretara, lanerako maya, lan-tresnaz betia, ta alderdi guzietan, antixun, poto, krisalu, argi-ontzi ta abar zintzilik. Eskuian alki batzuek.

Batixta ari da antixun bat antolatzen eta garai berian abestutzen, noizian bein maluarekin danbateko batzuek emanaz. Xoluerdi'k abestutzen laguntzen dio, baña oso paragari.

BATIXTA ta XOLUERDI

BAT. Festarik biar bada - bego Donostiya...

XOL. Bai, bai-bai.

BAT. Betikua du fama - ondo mereziya...

XOL. Bai, bai-bai.

BATIXTA

Bestetan ez bezela
emen gazteriya
amaren sabeletik
dator ikasiya.

XOLUERDI

Txin tata txinta, txinta
Pru-pru, pru-pru
Reeeee..... txin-ta
Txin, tata, txin-ta txin
¡Bum!

XOL. ¿E? Etziok gu bezelako abeslaririk mutuen etxian ere.

BAT. Bai; ta, alare, beti Xoluerdi.

XOL. Egiya diyok, to; beti zapata zarak konpontzen.

BAT. Zapata zarak ez diranak ere ekartzen dizkitek iri.

XOL. Bai, beri-beriyak ekartzen zizkiatek; beñere ibili gabiak.

BAT. Etzekiat ibili gabiak ekartzen dizkitek, bañan konpontzera ekaritako zapata asko, eorek ibiltzen ditukala, bai, ori bazekiat.

XOL. Zuzentziagatik.

BAT. Bai bada.

XOL. Badakik; oker-okerak ekartzen zizkiatek, eta nere oñetan zuzentzen dizkiat. Ez diat oraindik ormik arkitu nere oñak bezelakorik.

BAT. Ez ta ere oñetarako, besteren zapatak bezelakorik.

XOL. Balitekek.

BAT. Merkiagorik ez beintzat.

XOL. Usteko dek musu-truk zapatak konpontzen dirala...

BAT. Ik ez beintzat.

XOL. Ezta iñork ere.

BAT. Ago ixilik. Lengan ere edera egin iyokan Mateo Baxkalondo'ren alabari: zapatak konpontzeko ekari, laruba erosteko diruba biauakala esanaz, sei erial aundi atera...

XOL. Aundiyak, bai: mutur batetik besteañokuak.

BAT. Eta azkenian, sei erialak or nunbait urtu...

XOL. Or nunbait, ez...

BAT. Eta neska gajua, ez diru ta ez zapata utzi.

XOL. Or nunbait ez; zubekin xaltxa bat egin biar gendubela jua ta. Azkeneko txibota añakuak an utzi biar izan nizkikan.

BAT. Xoluerdi; irekin etziok gauza onik.

XOL. Zuben tartian sartu ezker ez beintzat. (Kaximira atzian azaltzen da)

BAT. Jaxinta-moko'ren alaba zetorek.

XOL. ¿ Jaxinta-moko'ren alaba? Beliak dizkiagu. (Kaximira sartzen da)

II

LENGUAK ETA KAXIMIRA

Xoluerdi gelditzen da buruba ezin gordiaz. Batixta'k ekiten dio lanari, abestuaz.

BAT. Festarik biar bada - bego Donostiya...

KAX. (Kaleko atetik kopet ilunarekin sartuaz) Egun on.

BAT. Ongi etori, panpoxa, arosaren krabeliñik zoragariyena. ¿Zer biar dezu? ¿Argi-ontxi, antixun, potoren bat?

KAX. Ez; beñere bere lantokiyan ez dagon baten bila etori naiz.

XOL. ¿Neregatik ari altzera?

KAX. Noski.

XOL. Jakin zazu bada, orain sartzia egin detala emen; eta etzait iduritzen lanari asko uztia dala, emen sartu-atera bat egitia.

KAX. Bai; lan-tokiyan zaudenian ere, lanari baño atze-aurera dijoazenai geyago begiratzen diyezu zuk.

XOL. Ai zazu: nik ori egiten badet, etxe jabiak zein sartu ta zein ateratzen dan begiratzeko agindu didalako da.

KAX. Gona-duna bada beintzat ez dezu iñoren agindurik biar; berari begira lerdia dariyozula egoteko.

XOL. ¡Noski! Jaxinta-moko'ren alaba edo... (Batixta'k Jaxinta-moko entzuten dubenian maluarekin soñu aundiya ateratzen du, Kaximira'k entzun ez dezan)

KAX. Ai zazu: polikitxo itz oyekin, nere amak ez du orelako izenik; nere ama, andre Jaxinta deitzen da.

XOL. Ni ere ez naiz Xoluerdi deitzen baña...

KAX. Beste batian kontuz ibiliko zera bada, nere aurian orlakorik aitatu gabe, alproja txara, ez besterena.

XOL. Orire aitu biar.

KAX. Orain, beste gauza bat.

XOL. Lengua baño obia izango al da.

KAX. Ez dakit; zuk igariko diyozu.

XOL. Ia, bada.

KAX. Guri uxua falta zaigu.

XOL. Ta, ¿zer nai dezu? ¿Laruzkua egitia? Ara, Batixta'k egin lezaizuke polit bat.

BAT. Bera bezin polita ez baña...

KAX. Beriketa gutxi; guri uxua falta zaigu, ta zure uxotegiyan, zure ganbaran irukiko dezu.

XOL. ¡Zer iruki biar det!

KAX. Alperik ukatuko didazu.

XOL. Ez dala egiya.

KAX. Len ere etzenduben zuk gure uxurik irukiko.

XOL. Iruki... iruki...

KAX. Iruki, bai, iruki.

XOL. Etori zan ta, an egontzan, neri naikua kalte egi ñik.

KAX. Etzenduben asmo oretan gorde.

XOL. Nere bizkar an mantendu zan. Lana naikua izan nuben ura mantentzen. ¡A zer gosia ekari zuben!

KAX. Noski. Zure etxian mantenduba, gurian ez bezelakua izango da-ta.

XOL. Uxuentzako bai. Geroni gosiak egongo bagera ere, gure uxuentzat plazan agertzen diran jakirik ederenak.

KAX. ¡Gezur zulo!

XOL. Amaika mokaru goxo jan ta eraman ziazuten beste uxu ura. ¡Guziyak ezagun zituben!

KAX. Zaude ixilik, abo zabal ori.

XOL. Gañera, mantentzia asko etzala, egunero usai-dun urakin garbitu, atxaparak ere arautza goringuakin diz-diz egiten zutela jari, ta gañera... moko... (Batixta'k *moko* entzutian maluakin soñu aundiya aterako du, Kaximira'k entzun ez dezan, Xoluerdi pixka batian ixilduko da, ta gero asiko da beriz) Esan bezela, gañera... moko... (Batixta'k beriz ere soñua ateratzen du) Aizak, i: *¡Ayuntamentuban* gaudela uste aldeak?

BAT. *¡Zer* esaten dekan, ez alaiz konturatzen? (Kaximira'ri begi-aldiak botiaz)

XOL. *¡Zer* esan diat bada?... *moko*...

BAT. Bai bada, uste ez dekala *moko*... (Abua eskuakin gorde, ta soñua ateratzen du Batixta'k)

XOL. Esan nai nikan, moko guziya *kol-krean*'ekin igurtzitzen niyola. *¡Zer* dik bada *moko* esatiak!

KAX. Begira, begira; naikua moko entzun degu, ta ez naiz ni oretara etori.

XOL. Ez; zu etori zera, ia nik guri-guri eginda beste uxoren bat ematen ote dizutan. Orela, nik mantenduta, zure amari, dituben uxuak merke aterako litzaizkake.

KAX. Ez ditubenak merkiago.

XOL. *¡Zer* uste dezu, zuben uxuentzat ostatuba jari detala nik?

KAX. Ez neri beriketakin etori. Atzo goiza ezkerro ez da azaldu, ta ederenetako bat da.

XOL. Edera da, bai, neri kontu oyekin etortzia.

KAX. Alperik zabilta, ez naiz ni orela geldituko.

XOL. Neregatik gelditu zaitia nai dezun bezela.

KAX. Ta onian nai ez badezu, aitortu biarko dezu alkatiaren aurian.

XOL. *¡Alkatiaren* aurian? Ez ta atzian ere.

KAX. Ez da aski zuk nai ez izatia.

XOL. Emakumia, iya zoratu nazu zure uxuakin. Utzi nazazu pakian.

KAX. Eta beriak aundiyaguak. Auxen da jari digun festa.

BAT. (Abestuaz eta lanian jaraituaz) Festarik biar bada - bego Donostiya...

XOL. ¿Zer uste dezu, zuben uxuai kontu artzeko nagola ni?

KAX. Kontu artzeko, ez; baña al dezun guziyan arapatzeko bai.

XOL. ¿Nor naizela uste dezu zuk?

KAX. ¿Zu? Alproja lotsagabe bat.

BAT. (Lanian, abestuaz) Betikua du fama - ondo mereziya.

XOL. Ez dizut ostiko bat ematen, zapaten muturak ez zikintziagatik.

KAX. ¿Zuk, neri? ¿Ja, jai? Ez dezu gutxi uste. Oretarakoxe dago nere amaren alaba. ¿Zer uste dezu zuk, arlote, makaroxo, eskalu orek?

XOL. Zaude ixilik.

KAX. ¿Zuregatik? ¿Alajaña! Ez ditugu aitzeko guziyak aitu. Zuk ixildu biar dezu, zuk, petral, likixkeri, inguma orek. Onlakorik ez da iñon ikusi ta entzun ere.

BAT. (Lanian, abestuaz) Bestetan ez bezela - emen gazteriya...

XOL. Entzun dituzu bada, ta utzi nazazu pakian.

XAX. ¿Nondik atera da onelako kraba-aroka au, nondik?

BAT. (Lanian, abestuaz) Amaren sabeletik - dator ikasiya.

XOL. Ez dizut itzik ere geyago esango, alperik da-ta.

KAX. Alkatiaren aurian esango dizkiatzu, alkatiaren aurian. Ikusiko degu emen bezin panparoi an itzegiten dezun. (Atzeko atera juaten da, ta Xoluerdi'k jaraitzen dio; baña Kaximira biurtzen da, ta Xoluerdi'k itzul egiten du) Alperik ibiliko zera, etzaitut utziko gure uxua biurtu arte. (Juaten da)

BATIXTA ta XOLUERDI

XOL. (Ate aldera juanaz) Azkenian ere juan aiz, beritsu, itz-jariyo. (Batixta'ri) Ama *moko* bada, alaba *moko* t'ardi badek gutxiyenaz. Oso amonatu azi niokan arte ez dek gelditu. Ama alaba oyeke arayak izan baitukan amonayak izango itukan.

BAT. Eoreke ere gaizki egin dek. Emakume bati esango diyok bada: zapaten muturak ez zikintziagatik...

XOL. Besterenak dizkiat-eta.

BAT. Izan ere. Ez nindukan konturatzen...

XOL. Baniak, baniak, lan pixka bat egiten ote diatan. (Juatena da atzetik)

BAT. Ua bai, ua. Ik egiten ditukan oñetakuen zai baleude Donostiyan, ez litekeke mauka txara izango alpraketa-gileak. Oren oñetakuak eta nere potuak, guziyak poto.

IV

BATIXTA ta JUSTO

BAT. (Lanian, abestuaz) Bestetan ez bezela - emen gazteriya -amaren sabeletik - dator ikasiya. Ori da: ikasiya. Nik eltze-tapak, txantxilak eta antixunak egiten bezela. Goizian goizetik ez det gero lan gutxi egin. (Maluarekin danbateko gogorak emanaz)

JUXTO. (Azaltzen da Juxto ta atetik oju egiten du) ¡Eri! Orenbeste danbatekoekin izardituko aiz goizetikan.

BAT. Artzaldeko ordañak dituk abek.

JUXTO. (Aureratuaz) ¡A! Beaz artzaldian...

BAT. (Abestuaz) Festarik biar bada bego - Donostiya...

JUXTO. ¡Ederki, ederki!

BAT. ¿Zer degu? ¿Ba gabiltza?

JUXTO. Bai, mutil. Arandeyan izan nak, eta erosi dizkiat sei kraba, ¡bañan nolakuak berak...!

BAT. ¿Bai, e?

JUXTO. Onlakuak. (Biatz-punta bilduak, abora eramanaz)

BAT. ¡Arayia, arayia!

JUXTO. Arayia, ez: araya, araya.

BAT. Bai, bai. (Potua indartsu juaz)

JUXTO. Bañan, ¿zergatik jotzen dek ori? Orek ez dik zer ikusirik.

BAT. Ala dek. Eta, ¿nun dituk bada krabak?

JUXTO. Arandeyan. *Axentxi trinpolas*'i utzi zizkat pagatuta, gero neskatxen bat bila bigalduko detala esanaz.

BAT. ¿Beraz, pagatuta, e?

JUXTO. Bai; ekari besterik ez dala. ¡Ikusiko bauke zer mokaru goxua...!

BAT. ¡A! (Potua indarez juaz)

JUXTO. Bañan, etzakala orengatik potua jo.

BAT. Gaurko nere aratzaldeko kutiziya oyetxek itukan: krabak...

JUXTO. ¿Krabak beaz, e? Nik jango dizkiat bada.

BAT. Bai: krabak eta uxua itukan nere kutiziya.

JUXTO. ¿Uxua ere bai? Mutil, uxuak aidian ibiltzen dituk.

BAT. Ganbara-zuluan ez daudenian, bai.

JUXTO. Ara, ara: ik eizen bat begiz jua daukak.

BAT. ¿Nik jo? Mutil, nik ez dizkiat jotzen potuak besterik.

JUXTO. Etzekiat ba, etzekiat ba...

BAT. ¿Zer jakin biar dek ezer ez bada?

JUXTO. Orduban baniak, lan pixka bat egiten ote detan.

BAT. ¿Ez alaiz oraindik aberastu?

JUXTO. I bezela. Biyen artian zerbait izango diagu.

BAT. Bai: sei kraba, ta ederak gero.

JUXTO. Neretzako ordia. (Atera juan eta andik para ta iseka egiñaz) ¡Batixta!
¡Neretzako! (Juaten da)

BAT. ¿Iretzako? ¿Ez ote zaizkik kontrako eztarira juango? ¿Eztari ontara? Ikusiko diagu.

V

BATIXTA (bakarik)

BAT. Uxuak goyen daude, krabak beriz bian. Betik asi biar degu bada. Ez diyote gaur Batixta'ri eztaririk uratuko. (Oldoztuaz) Bai; orixen egingo det. Emakumeren bat balegoke leyuan... (Atzetik begira) ¡A! ¡Ara *Antoni-karanpa*: Orixe deituko diyot; eta oretxek, iñork baño obeto lan au egingo dit. (Atzetik deituaz) ¡Antoni! ¡Antoni!... Zera. Ai zazu. Zuaz arandeira, ta *Axentxi Trinpolas*'i esan zayozu, Juxto'k erosi ta pagatuta utzi dituben krabak emateko... ¿E?... Bai, Juxto'k. Emen dago orain eta... (Barura begira Juxto'rekin izketan ari balitz bezela; ta gero kanpora) Berak agindu dizula esan zayozu. Bai. Eta beriala ekari itzazu onera. Atietan itxoingo dizut. Bai, beriala, bai. (Martzelo jauna atzian)

VI

BATIXTA ta MARTZELO JAUNA

Martzelo agertzen da ate-aurian eta garonduan Batixta
esku-makilarekin juaz

MAR. ¡E, e! ¡Neskatxa gaztiakin txeletaka, e!

BAT. Bai, zera; lan-kontu ari giñan. Lana besterik ez darabilkigu guk. Guztiyak beori bezela ezin bizi. (Garai ederian etori aiz oraintxe).

MAR. ¡Ai, Batixta, Batixta! Paperak egiten dituzu zuk.

BAT. ¿Paperak? Ez jauna, ez: marmidak, txantxilak, eltze-tapak eta antixunak. Oyekin badaukat lana naikua, ta etzait gelditzen paperak egiteko betik.

MAR. Bai, ordia, kaxuela xaltxentzat.

BAT. Oyek ez ditugu egiten, garbitu bakarrik. (Eta au emen dagola ¿nola gorde biar ditut krabak?).

MAR. Gaur artsalderako ere zerbait asmatuba irukiko dezu onezkerero.

BAT. Bai zera. (Nayago nuke krabak nola gorde asmatuko banu)

MAR. Ez dakit bada; izango dira gaur artsalderako krabaen batzubek edo...

BAT. ¿Krabak? Xoluerdi'ren lan-tokira eramango ditut.

MAR. ¿Nola?

BAT. Ez, ez; eltze-tapa batzubek Xoluerdi'ri eraman biar dizkatala. (Antxen, ederki. Ori egingo det).

MAR. Izango dituzu bai, krabaen batzubek, edo uxoren bat...

BAT. Uxua, gero.

MAR. ¿Nola, gero?

BAT. Bai, esan nai det, orain ez daudela guretzat. Egan ibiltzen diran jaki goxu oyek beontzat izaten dira; aberatsentzat. (¿Ageri ote da?). (Atzetik begiratuaz)

MAR. Ai, Batixta, aspaldi utzi nituen jaki goxo oyek...

BAT. Nik beriz, jayo bañore lenagotik. (Xoluerdi'ren lan-tokiyan ederki gordeko ditut).

MAR. Lau urte badira, sendakiñak eragotzi zirala.

BAT. ¡A zer biyotz gogora zuben!

MAR. Bi urte egon naiz, bi urte, esne utsakin.

BAT. ¿Esne utsakin? Orela badijua, beori gazta biurtuko da. (Atzetik begiratuaz) (Oraindik ere ez dator).

MAR. Orain asi naiz arai pitin bat jaten.

BAT. ¡Pitin bat besterik ez? Orduban beori ni baño arlotiagua da (Atzetik beriro begiratuaz) (¡A! ¡Emen dator Antoni Karanpa, ta berarekin dakarzki krabak! Nuan bere bila). ¿Pixka bat itxongo dit, e? Or, aldamenian, baditut txantxila ta potix batzubek antolatu biarak eta...

MAR. Bai, bai, zuaz.

BAT. (Atetik kanpora keñu batzuek egin, eta gero Martzelo'ri) Beriala etoriko naiz.

MAR. Zuaz, zuaz; begiratuko diyot nik bitartian zure lantokiyari.

BAT. Bai, bai; eskarikasko, (Lasterka juaten da)

VII

MARTZELO bakarik

Bere tokitik altxa ta lanerako mayera alderatuaz

MAR. Agindu diyotan ezkerro, agindu bezela egin biarko det. Lan-tokiyari begiratu; edo garbiyago esanaz, lan-tokiko gauzai begiraldi bat eman. (Malua eskuan artuaz) ¡Ja, ja! Emen aritzen da Batixta egun guztiyan, ¡danba! ¡danba! (Maluarekin pota bat juaz) ¡Zer ez nuke nik emango oren sasoya izatiagatik! Nai dubena jan, edo al dubena, bañan, nolanaire, jan beintzat; lanerako kupirik gabe, ari egun guztiyan; eta, gabian, lo lasai, ¡Nork beste orenbeste egin lezaken! Nik, nere diru guziyakin ezin det beintzat. Ora nola gertatzen dan azkenerako, ni diru-duna ta ori diru-gabia izan aren, ori ni baño aberatsagua dala. Ni baño obetuago bizi da beintzat. (Makurtubaz eta zerbait lurian ikusi nayian) ¡Zer ote dira emen daukazkiyen txirimiri abek?

VIII

MARTZELO ta BATIXTA

BAT. (Atietan azalduaz) Oitu bezela, Xoluerdi orain ere lan-tokitik alde egiña. Baxo-erdien bat ustutzerá. An utzi ditut krabak, txoko batian gorde-gorde eginda. (Sartubaz) ¡Oi! ¡Zer egin ote du Martzelo jaunak? ¡Galdu egin ote da? (Begiratzen du alde guzietara. Azkenian ikusten du) ¡Zer dabil or? ¡zilarezko zerbait bilatzen ote duben?

MAR. Ez; zerbait jaki gordeta ote zenekazun, begiratzen nuen. Badakizkizute zubek txokuetan gordetzen.

BAT. Emen ez; Xoluerdi'ren lan-tokiyan gordetzen ditugu orain.

MAR. ¡A! ¡Banekiyen nik zerbait!

BAT. (Orain Moko'ren uxua... Badakit, Xoluerdi'k, ganbaran gordia irukiko dubela. Bere arebari eskatuko diyot. Jaxinta Moko'ren alaba izan dala, ta anayak emateko agindu dubela. -Emateko oretan xamura izanda...-Baña, ala esango diyot).

MAR. ¡Ai, Batixta, Batixta, zer lasai bizi zeran!

BAT. Ez dakizki ondo zer buru-austiak dabilzkitan orain bertan ere. (Ematen badit uxua, ezin eramango det ordia Xoluerdi'ren lan-tokira. ¡Nola, bada?)

MAR. Zure osasuna izan ezkerro, buru-auste oyek erex eraman litezkenak dira.

BAT. Beorek eramanari besterik ez diyo begiratzen, Neri, ekartziak lanak ematen dizkit, ekartziak. (Onera ekariko det; ez du onek ezer ere igarikota).

MAR. Dala eraman, dala ekari, zure azkartasunarekin erex egingo dezu.

BAT. ¡Ala uste al du?

MAR. Bai, bada.

BAT. Sayatuko naiz bada. Beste pixka bat itxoingo du, ¿e?

MAR. ¡Beriz?

BAT. Bai, beriala emen naiz. (Juaten da)

IX

MARTZELO bakarik

MAR. Gaur, juan-etori asko dabilzki Batixta'k. ¡Zer ote dakar? Izango du zerbait. Eta guziya, tripa-festa izango da. Gaur aratsalderako zerbait antolatzen ariko dala iduritzen zait. Bai, bai. Ori da bizitzia, ori. Iñork ez du jakiten osasunak ematen dituben alaitasunak zer diran, osasuna bera galdu arte. Neri, beñepein, orela gertatu zait. Ez gaude berdiñik Batixta ta ni. Ez, noski. Ni emendik orera juateko, bilduraz bezela nago; ta ori beriz, orain bertan, onenian, ganbaren batera igota ibiliko da, eguak berekin balitu bezela; bai, eguak berekin balitu bezela. Ez gera guztiyak almen berekuak. Ni gizon abetzaz irikiturik bizi naiz, irikiturik. Gu, arastaka bezela gabiltza; ta, abek beriz, eguak berekin balituzte bezela.

X

MARTZELO ta BATIXTA. Beriala JUXTO ta ANTONI.

Geroxiago KAXIMIRA

BAT. (Uxo bat galtzarbian ezin gorde dubela sartzen da) (¡Emen dek!)

MAR. Orain negon nere artian, zerorekin eguak bazenitu bezela zabiltzala.

BAT. Bai, jauna; eguak eta gañerakua ere bai. (¿Non gordeko ote det?)

MAR. Gizonaren bikaintasuna.

ANT. (Antoni ta Juxto zalaparta biziyan sartzen dira atzetik) Ez, ez, ez, ez; ederak aitu biar ditu. ¿Zer uste du, katu-array'orek? ¿Antoni Karanpa saltza oyetan sartzeko dagola? Gezurretan etorita, gezurretan, gezurretan... Ez, ez, ez, ez.

BAT. (¡Juxto! ¡Galduba nak!)

ANT. Zuk agindu ziyozula esan dit; eta, gañera, zu emen zeundela. Ta zu emendik ateratzen, neronek lenago leyotik ikusiya. ¿Ta, orela, gezurretan etori? Ez, ez, ez, ez.

BAT. (¡Zer egin biar det nik onekin!)

ANT. Krabak ekari dizkat, bai, egiya da; bañan bai aguro zure-gana juan ere egiya ote dan jakitera. ¿Zer uste du trip'ustel, galtza-jariyo orek, Antoni Karanpa bera bezelako lapureta-gilea dala? Ez, ez, ez, ez. Gaur arapatzen badet, txilbora kenduko diyot. (Batixta ikusiaz) ¡A! Ara nun dagon bera.

MAR. ¿Zer gertatzen da emen?

JUXTO. (Antoni ondolik duela Batixta'rengana juanaz). Aizak, i: ¿nun dituk nere krabak?

ANT. Or daukazki; bai, bai, bai, bai. Ezin gorderik dabil; begira, begira.

JUXTO. Ekazkik kraba oyek; aguro gero.

BAT. Ez dituk krabak; beste gauza bat zeukat emen.

ANT. Gezura, gezura; neronek ekariyak ortxen ditu.

BAT. Ezetz; ez daudela emen.

JUXTO. ¿Emango al nazkik? ¡Bestela, ez egitekoen bat egingo diat!

BAT. Ez dirala krabak.

ANT. Bai, bai, bai. Gezura diyo izoki orek.

JUXTO Erakutsi itzik.

ANT. Erakutsi biarko.

KAX. (Atzetik sartuaz) ¿Ez al dago emen lengo kraba-aroka ura?

MAR. ¿Krabak al dituzu zuk ere?

BAT. Ez dirala.

ANT. Badirala.

JUXTO. Erakutsi itzik.

ANT. Erakutsi...

BAT. (Uxua erakutsiyaz) Ora bada.

JUXTO.

} ¡Oi! ¡Uxua!

ANT.

MAR. ¡Uxua!

KAX. ¡Neria!

BAT. ¡E! (¡Nondik sortu da au!)

KAX. Gure uxua da ori. Ongi ezagutzen det.

BAT. (Ixil-aldi txiki baten ondoren) Alaxen da. Xoluerdi'k ukatu egin dizu, bañan nik ezagutu det beriala, egiya zuria dala.

KAX. Bai, noski.

BAT. Eta, ala; jua naiz beren etxera, ta nai badute, ta nai ez badute, eman biar izan didate; ta ona nun daukazun: tori, zuria da. '(Kaximira'ri uxua ematen dio, ta onek musuka dabilki)

KAX. ¡Gure uxu moñoñua! (Batixta'ri) Zu zera gizona, zu.

BAT. Bai, noski. (Au bai dala pipen txortena jotzia). ¿Eta onelako gauzak egiten dakiyen gizon bati, emen entzun diran zitalkeriyak esaten al zaizka?

ANT. Nik ez dizut zuri aitatu ez uxoik eta ez karamaroik. Ni krabengatik etori naiz. Zuk esan didazu Juxto emen zegola; ta ori gezura da, gezura ta gezura.

BAT. Nik ez dizut orlakorik esan. Nik esan det Xoluerdi zegola emen, eta ementxen zegon; eta bestela, esan dezala Kaximira'k, egiya esan nai badu, Xoluerdi emen zegon edo ez.

KAX. Ori; bai: emen zegon. Neronek, nere begiyakin, ikusi det.

ANT. Neri ordia, Juxto zegola esan dit.

KAX. Xoluerdi ementxen zegon bada; ta ez ni gezurtizat atera, zu ez bezelakua naiz ni egiya esaten da.

ANT. Beriketan beintzat bai. Ama-alabak ere mingain ederekuak zerate. Zuben *mokua* nolakua dan; guztiyak dakigu.

KAX. Mokua izango degu, bañan, *karanpik* ez. Ez ta zubek bezela zokuetan ezin gorde diran zikinkerik nazkagaririk ere.

ANT. Zubek izango dituzute, zubek.

KAX. Zubek.

ANT. Zubek. (Karasika alkari eltzera bezela dijoaz.' Bestiak zabaltzen dituzte)

MAR. Zaudezte ixilik.

KAX. Katu-array'ori begiratu...

ANT. Masopal ustel orenak aundiyaguak. (Beriro alkari eltzera bezela, biyak batian karaxika itzegiñaz)

ANTONI

KAXIMIRA

Obe zenuke zure osaba begi-
okeraren makarak kendu, ta
ez emen zikinkeririk aitatu.
!Utikan, moko-luxe alena!

¿Zuek bezelako urde nazka-
gariyak gerala uste al dezu?
¡Utikan lotsagabia ez beste-
rena!

(Guztiyen artian zabaldu ta ixildu azitzen dituzte)

JUXTO. ¡Ixilik egongo al zerate, beritsu oyek!

MAR. ¡Ixo!

JUXTO. ¿Oretara etori generala, uste al dezute?

MAR. ¡Abek ituriyak! (Ixil-aldi labur bat)

JUXTO. Emen jakin biar deguna da nere krabak nun diran.

BAT. Nun izango dituk? Xoluerdi'ren lan tokiyan. Aren egitekuak dituk guziyak. Arek, ire izenian, agindu zia. Ari eraman zizkat.

JUXTO. ¿Xoluerdi'k al ditu?

BAT. Bai, ba.

JUXTO. Arapatzen detan toki berian, zanpatuko diat, txetuko diat, auts egingo diat.

XI

LENGUAK eta XOLUERDI

XOL. (Krabak eskuan dituela abestuaz sartzen da) Txintata txinta txinta, txintata txinta txin (Juxto'ri bere aurian jariyaz) ¡Juxto! ¡Krabak! Neretzako, neretzako. Nik mauka-mauka jateko. (Batixta'ri) Lan-tokiko txoko batian gordeta arkitu dizkiat.

JUXTO. Ekazkik onera kraba oyek, neriak dituk-eta. (Gogorian kentzen diozka)

XOL. ¿E? ¿Nola?

JUXTO. Geldirik ez baago, sudura txetuko diat, eskalu, kirten ori.

XOL. Bañan, ¿nola izan litezke zuriak, nik bilatuta?

JUXTO. Batixta'k esango dik.

KAX. (Xoluerdi'ri uxua erakutsiyaz) Zu, zu... ¿etzenduben zuk gure uxorik gorde, e?

XOL. Bañan, ¿nondik dezu uxu ori?

KAX. Batixta'k esango dizu.

XOL. (Batixta'ri). Aizak, i: ¿bañan zer gertatu da emen?

BAT. ¿Emen? Ezer ez, ta festa.

TORIBIO ALZAGA.

ZAPIA JEISTEN DA